OBRA KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ADJUDIKATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA	**PLIEGOS DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE OBRAS, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO**
HIRI IGOGAILUKO PROIEKTUA VISTA ALEGREN (ALLEMENDI 10) 2022IK200011	**PROYECTO DE ASCENSOR URBANO EN VISTA ALEGRE (ALLEMENDI 10)** 2022IK200011
I. XEDAPEN OROKORRAK	**I. DISPOSICIONES GENERALES**
1. KONTRATUAREN XEDEA	**1. OBJETO DEL CONTRATO**
Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea da "HIRI IGOGAILUKO PROIEKTUA VISTA ALEGREN (ALLEMENDI 10)" sartutako obrak egitea. Xabier Uranga Royo eta Zuria Arechaga Loyo arkitektoek (UR ARQUITECTURA) idatzi dute proiektua.	El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto la ejecución de las obras incluidas en el "PROYECTO DE ASCENSOR URBANO EN VISTA ALEGRE (ALLEMENDI 10)" redactado por los arquitectos Xabier Uranga Royo y Zuria Arechaga Loyo (UR ARQUITECTURA).
Obrak egitean zorrotz jarraituko dira kontratuan azaltzen diren baldintzak, agiri honetan eta, halakorik balego, Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak eta kontratuaren oinarri den proiektuan jasotakoak. Eta, gainera, obrak bat etorriko dira, proiektuaren interpretazio teknikoa eginez, obra zuzendariak, edo bestela kontratuaren arduradunak —bakoitzak bere eskumeneko arloan—, kontratistari emango dizkion aginduekin.	Las obras se ejecutarán con estricta sujeción a las condiciones que figuran en el contrato, a las estipulaciones contenidas en el presente Pliego, así como en el Pliego de Prescripciones Técnicas, y al proyecto que sirve de base al contrato y conforme a las instrucciones que en interpretación técnica de este dieren a la empresa contratista la dirección facultativa de las obras, y en su caso, la persona responsable del contrato, en los ámbitos de su respectiva competencia.
CPV nomenklaturaren kodifikazioa, kontratuaren xedeari dagokiona: 45313100-5	Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 45313100-5
Kontratu honen xedea sorta bakar batean dator	El objeto de este contrato viene configurado como un único lote
2. ARAUBIDE JURIDIKOA	**2. RÉGIMEN JURÍDICO**
Egingo den kontratua zerbitzuetako obretako kontratu modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena (13 artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei	La contratación a realizar se tipifica como contrato de obras de conformidad con lo establecido en el artículo 13 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público (en adelante LCSP), quedando sometida a dicha Ley, así como al Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, en tanto continúe vigente, y al Real Decreto 817/2009 , de 8 de mayo, por el

buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatuko dituzten erregelamenduzko arauak, eta Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak.

que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, o a las normas reglamentarias que los sustituyan (en adelante normativa de desarrollo de la LCSP), y a las cláusulas contenidas en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki bidez adjudikatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (aurrerantzean, SPKL) 159 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Se tramita expediente ordinario para la adjudicación del contrato mediante procedimiento abierto, según lo dispuesto en el artículo 159 abierto de la LCSP

3. KONTRATAZIO-ORGANOA

SPKLak 2. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Alkatetzak izango du kontratazio hau egiteko ahalmena.

Kontratazio-organo horrek du administrazio-kontratua adjudikatzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak bat datoz araudi aplikagarriarekin. Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta enpresa edota entitate adjudikaziodunak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean inpugnatzeko.

3. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

Por razón de lo dispuesto en la Disposición Adicional 2ª la LCSP, la competencia para la presente contratación corresponde a la Alcaldía.

El mencionado órgano tiene facultad para adjudicar el correspondiente contrato administrativo y, en consecuencia, ostenta las prerrogativas de interpretarlo, resolver las dudas que ofrezca su ejecución, modificarlo y acordar su resolución, con sujeción a la normativa aplicable. Los acuerdos que a este respecto dicte serán ejecutivos, sin perjuicio del derecho de la empresa adjudicataria a su impugnación ante la jurisdicción competente.

4. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta euren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLak 71 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

4. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP.

Pertsona juridikoak adjudikaziodun izan daitezke, soil-soilik euren prestazioak jardueraren xede, helburu edo arloan sartuta badaude eta euren estatutu edo fundazio-arauetan hala jasota badago. Gainera, kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoa den antolakuntza edukiko du (nahikoa langile eta materialekin).

Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios, y deberán disponer de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato.

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek agiri bidez frogatu beharko dute ordezkari izateko ahalmena dutela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.		Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultada para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.
Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta adjudikazioa egin baino lehen enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa amaitzen bada (fusioagatik, zatiketagatik edo bere enpresa-ondarea eskualdatzeagatik), orduan honako hauetako batek hartuko du prozeduran hark zuen lekua: sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortutakoak, zatiketaren onuradunak edo ondarea bereganatu duenak, baldin eta kontratatzeko gaitasuna izan eta hartarako inolako debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena duela egiaztatzen badu, betiere adjudikazio prozeduran parte hartzeko plegu hauetan eskatutako baldintzetan.		Si durante la tramitación del procedimiento y antes de la adjudicación se produce la extinción de la personalidad jurídica de la empresa licitadora por fusión, escisión o por la transmisión de su patrimonio empresarial, le sucederá en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibiciones de contratar y acredite la clasificación y/o solvencia en las condiciones exigidas en este Pliego para participar en el procedimiento de adjudicación.
Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena enpresa adjudikaziodunak bakarrik egiaztatuko ditu.		La capacidad y solvencia para contratar se acreditará solamente por la empresa adjudicataria
5. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZE EPEA		**5. DURACIÓN DEL CONTRATO Y PLAZO DE EJECUCIÓN**
Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko epea **4 HILABETE** izango da, zuinketaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.		El plazo de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de **4 MESES** contados a partir del día siguiente al de la firma del acta de comprobación del replanteo.
Obra hasi beharko da kontratua sinatu eta gehienez ere hilabeteko epean,		La obra deberá iniciarse en el plazo máximo de un mes desde la firma del contrato
Obrak bere epean amaitzen ez badira, adjudikazioadunak berandutzagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.		La empresa contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte del Ayuntamiento
. Enpresa adjudikaziodunak une oro bete beharko ditu Obra-zuzendaritzak lanak koordinatzearren emandako jarraibideak.		La empresa adjudicataria del contrato deberá seguir en todo caso las instrucciones de la dirección de Obra en orden a la coordinación de los trabajos.
Obra-zatiak edo -unitateak gauzatzeko epe partzialak enpresa kontratistak aurkeztu beharreko lan-programan zehaztuko dira,		Los plazos parciales relativos a la ejecución de las diversas partes o unidades de obra serán concretados en el programa de trabajo a

gehienez ere kontratua formalizatu eta astebetera (baldintza teknikoen agiriko 6. atala).		presentar por la empresa contratista en un máximo de 1 semana una vez formalizado el contrato (apartado 6 del Pliego de Prescripciones Técnicas)
6. AURREKONTUA. LIZITAZIO TASA		**6. PRESUPUESTO-TIPO DE LICITACIÓN**
"HIRI IGOGAILUKO PROIEKTUA VISTA ALEGREN (ALLEMENDI 10¨)"n sartutako lanak egiteko prezioa gehienez 362.709,00 € BEZ barne euro BEZ barne (299.759,50 euro + 62.949,50 euro BEZ) Prezio horretan sartuta daude kontratuak sortutako kontzeptu eta gastu guztiak		El precio máximo de licitación para la ejecución de las obras incluidas en el "PROYECTO DE ASCENSOR URBANO EN VISTA ALEGRE (ALLEMENDI 10)" "será de 362.709,00 € BEZ barne IVA incluido (299.759,50 euros + 62.949,50 euros de IVA) En el mismo están incluidos todos los conceptos y gastos derivados del contrato.
Lizitatzaileek diru-kopuru hori beherantz hobetu dezakete. Eskaintza bakoitzaren zenbatekoak balio erantsiaren zerga (BEZ) sartuta edukiko du, eta banatuta adierazi beharko da zein den prezio osoa (BEZ sartuta) eta zein BEZari dagokion zenbatekoa.		Dicha cantidad total podrá ser mejorada a la baja por quienes liciten entendiéndose que en el importe de cada oferta está incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA), debiendo figurar, además, desglosados ambos conceptos.
Edozein obra-unitate ongi egin eta bukatzeko beharrezkoak diren lanak, bitarteko lagungarriak eta materialak obraren prezioan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta prezioen deskonposizio edo deskribapenean horiek guztiak espezifikatu gabe azaldu (Estatuko obrak kontratatzeko klausula orokorren agiriko 51 klausula, abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretu bidez onartua).		Todos los trabajos, medios auxiliares y materiales que sean necesarios para la correcta ejecución y acabado de cualquier unidad de obra se consideran incluidos en el precio de la misma, aunque no figuren todos ellos especificados en la descomposición o descripción de los precios (cláusula 51 del Pliego de Cláusulas Generales para la contratación de obras del Estado -aprobado por Decreto 3854/1970, de 31 de diciembre-).
Enpresa kontratistak ulertu beharko du kontratuz eska dezakeen ordainsari guztia ondorengoa izango dela: proiektuan ezarritako obra unitateetatik, benetan egin direnen prezioen batura, nahiz eta proiektuaren zehaztapenetan zeregin edo lan beharrezkoak edo garrantzitsuak espezifikatu gabe egon (Estatu Kontseiluaren 1992ko irailaren 24ko Irizpena).		La empresa contratista deberá entender que toda la remuneración contractualmente exigible es la que resulta de sumar los precios de las unidades de obra fijadas en el proyecto efectivamente realizadas, por más que en su determinación no se especifiquen tareas o trabajos necesarios o importantes. (Dictamen de 24 de septiembre de 1992, del Consejo de Estado).
Obrak egin bitartean, Administrazioak onartutako proiektuan adierazitako prezio unitarioak egongo dira indarrean, eskaintzaileak egindako eskaintza ekonomikotik ateratzen den adjudikazio-koefizientea aplikatu eta gero.		Los precios unitarios que regirán durante la ejecución de las obras serán los que figuran en el proyecto aprobado por la Administración, afectados por el coeficiente de adjudicación resultante de la oferta económica realizada por quien licite.
Eskainitako prezioek ezingo dituzte aldatu proiektuan obra unitate bakoitzerako definitutako materialak, horien ezaugarriak edo kopuruak; ezta obra unitate bakoitzaren		Los precios ofertados no podrán modificar la definición, especificaciones o cuantías de materiales definidas en proyecto para las distintas unidades de obra ni la definición de

prezioa osatzen duten zuzeneko eta zeharkako kostuak ere.	los costes directos e indirectos que componen el precio de cada una de ellas.
Proiektuan definitutako markekin egingo da eskaintza, eta adjudikazioa ere prezio horietan oinarrituta egingo da. Adjudikaziodunak materialen eta ekipoen aldaerak aurkeztu ahal izango ditu obrako fasean, baldin kalitateak, prestazioak eta prezioak antzekoak badira.	La oferta se realizará con las marcas definidas en el proyecto, y la adjudicación se realizará en base a esos precios. En fase de obra la empresa adjudicataria podrá presentar variantes en los materiales y equipos siempre que las calidades, prestaciones y precios sean similares.
7. PREZIOAK BERRIKUSTEA	**7.REVISIÓN DE PRECIOS**
Ez dira prezioak berrikusiko	No procede la revisión del precio
8. FINANTZIAZIOA	**8. FINANCIACIÓN**
Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan, honako partida honetan: 0401.623.02.150.00 2022 (7356)	Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto municipal del año en curso en la siguiente partida: 0401.623.02.150.00 2022 (7356)
9. ORDAINKETA	**9. PAGO**
Egindako obrak ziurtagirien bidez ordainduko dira. Obren zuzendari fakultatiboak egingo ditu ziurtagiri horiek.	El pago de las obras ejecutadas se realizará mediante certificaciones expedidas por la dirección facultativa de las mismas.
Abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoaren arabera faktura elektronikoa egin behar duten erakundeek Zarauzko Udalari igorri beharko dizkiote fakturak, formatu elektronikoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (www.udalgida.net), Zarauzko Udala atxikituta dagoena, Udalaren DIR3 kodeak erabiliz: DIR3 (1+2+3) kodeak L01200795	Las entidades obligadas a la emisión de factura electrónica conforme a lo dispuesto en la Ley 25/2013 de 27 de diciembre, deberán remitir sus facturas al Ayuntamiento de Zarautz en formato electrónico a través del Punto General de Entrada de Facturas Electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (www.udalgida.net) al que el Ayuntamiento de Zarautz está adherido, utilizando los códigos DIR3 del Ayuntamiento: Códigos DIR3 (1+2+3): L01200795
Enpresa kontratistak eskubidea izango du emandako kontratuarekin —eta, halakorik balego, aldaketekin— bat etorriz, benetan egin dituen lanen prezio hitzartuak kobratzeko.	La empresa contratista tendrá derecho al abono, con arreglo a los precios convenidos, de las obras que realmente ejecute con sujeción al contrato otorgado y a sus modificaciones, si las hubiere.
Ordainketa egiteko, Administrazioak hilero (hurrengo hileko lehen hamar egunetan) epealdi horretan egindako lanei buruzko ziurtagiriak egingo ditu. Egindako ziurtagirien ordainketa horiek, berez, kontura egindako ordainketak izango dira, azken neurketan sartutako zuzenketa eta aldaketek agindutakoaren mende gelditukо dira, eta ordainketa horrek inolaz ere ez du esan nahiko	A los efectos de pago la Administración expedirá mensualmente, en los primeros diez días siguientes al mes que correspondan, las certificaciones que comprendan la obra ejecutada durante dicho periodo de tiempo. Los abonos a la empresa contratista resultantes de las certificaciones expedidas tienen el concepto de pagos a buena cuenta, sujetos a las rectificaciones y variaciones que se produzcan

ziurtagirian sartutako obrak onartzen eta jasotzen direnik.		en la medición final y sin suponer en forma alguna aprobación y recepción de las obras que comprende.
Obrako ziurtagiriak edo kontratua osorik edo zati batean egin dela frogatzeko beste edozein agiri egiten denetik kontatzen hasi eta hurrengo hogeita hamar eguneko epearen barruan ordaindu beharko du prezioa Administrazioak, SPKLren 210.4 artikuluan jarritako epe bereziari utzi gabe. Administrazioa ordainketa hori egiten atzeratzen bada, berandutza-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari, hogeita hamar eguneko epe hori igarotakoan, uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritakoaren arabera. Lege horrek abenduaren 29ko 3/2004 Legea —merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkakoa— aldatzen du		La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de la expedición de las certificaciones de obras o de los correspondientes documentos que acrediten la realización total o parcial del contrato, sin perjuicio del plazo establecido en el artículo 210.4 de la LCSP y, si se demorase, deberá abonar a la empresa contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días, los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.
Kontratistari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziurtagirian kendura proportzionalak egingo dira.		Cuando por causas no imputables a la empresa contratista dejaren de efectuarse circunstancialmente las prestaciones objeto del contrato, se verificará la deducción proporcional en la certificación correspondiente.
Kontratuaren epean edo epeetan bukatzeko aurreikusita zeuden eran baino azkarragoan egin ditzake lanak kontratistak; aldiz, ez ditu azkarrago egingo, baldin obrako zuzendaritzak uste badu horren kontrako arrazoiak daudela.		La empresa contratista podrá desarrollar los trabajos con mayor celeridad que la necesaria para ejecutar las obras en el plazo o plazos contractuales, salvo que a juicio de la dirección de la obra existiesen razones para estimarlo inconveniente
10. BERMEAK		**10. GARANTÍAS**
Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa edo entitate lizitatzaileak, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 10 egun balioduneko epea izango du berme bat eratzeko, hain zuzen ere, adjudikatutakoaren zenbatekoaren % 5ekoa (BEZ gabe).		La empresa licitadora que haya presentado la oferta más ventajosa deberá acreditar, en el plazo de 10 días hábiles desde el día siguiente a aquél en que haya sido requerido para ello, la constitución de una garantía de un 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA.
Kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren proposamen ekonomikoa hasieran anormaltzat edo neurriz kanpokotzat jotzen bada, gero onartu ahal izateko, aurreko bermeaz gain, adjudikazioaren zenbatekoaren % 5eko berme osagarria eratu beharko du, berme osoa kontratuaren prezioaren% 10era irits dadin.		En el caso de que la proposición económica de la empresa adjudicataria del contrato se hubiera considerado inicialmente como anormal o desproporcionada, para posteriormente ser aceptada, además de la garantía anterior deberá constituir una garantía complementaria de un 5% del importe de adjudicación, de tal forma que la garantía total alcanzará el 10% del precio del contrato.

SPKLak 108.1. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori.	Las garantías podrán constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108.1 de la LCSP.
Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Kutxabanken sartuko da 2095/5076/41/1060000246 zenbakiko kontu korrontean, eta abonu-agiriaren kopia bat eramango da Diruzaintzara. Horrekin batera kontu korronte baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzean dirua bertan sartzeko.	En caso de constituirse en metálico, el importe de la garantía se ingresará en la cuenta corriente número 2095/5076/41/1060000246 de Kutxabank, entregando una copia del abonaré en la Tesorería junto a un número de cuenta corriente donde se desee que se ingrese la devolución de la garantía.
Bermea osorik edo, halakorik bada, zati bat, SPKLak 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz itzuliko da, berme-epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak kontratuko obligazioak bete ondoren.	La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la persona adjudicataria todas sus obligaciones contractuales
II.- <u>KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA</u>	**II.- <u>ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO</u>**
11. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA	**11. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN**
Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatu bidez adjudikatuko da, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onenean oinarrituta, hainbat adjudikazio-irizpide erabiliz.	La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto simplificado, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio
Kontratuaren adjudikazioa egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat, bakoitzak duen garrantzi eta haztapenaren arabera beheraka ordenatuta:	Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del contrato, relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye, son los siguientes:
11.1.Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak Gehienez 75 puntu – Eskaintza ekonomikoa, lizitazio-tasaren arabera. Gehienez 70 puntu – Kontratua exekutatuko duten pertsonalak kontziliazio-neurriak euren bizitza pertsonala, lana eta familia-bizitza uztartzeko: 3 puntu – Obra egingo duen lantaldean kontratatutako emakumeen portzentajea: puntu 2	11.1. Criterios evaluables mediante fórmula. Máximo 75 puntos – La oferta económica respecto al tipo de licitación. Hasta-70 puntos. – Medidas de conciliación de la vida personal, laboral y familiar para la plantilla que ejecute el contrato: Hasta 3 puntos – Porcentaje de mujeres contratadas en la plantilla que va a ejecutar la obra: hasta 2 puntos
11.2. Formula bidez ebaluatu ezin den irizpidea: 25 puntu	11.2. Criterio no evaluable mediante fórmula:25 puntos
<u>11.1. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN IRIZPIDEA: GEHIENEZ 75</u>	<u>11.1. CRTERIO EVALUABLE MEDIANTE FÓRMULA: PUNTUACIÓN MÁXIMA DE 75</u>

PUNTU ***(C ARTXIBO ELEKTRONIKOAN SARTU BEHARREKOA)***	PUNTOS ***(A INCLUIR EN EL ARCHIVO ELECTRÓNICO C)***
11.1.1.Eskaintza ekonomikoa: gehienez 70 puntu	11.1.1.Oferta económica: Hasta 70 puntos
Eskaintza ekonomiko onena egiten duen lizitatzaileari emango zaio puntu gehien.	Se otorgará la máxima puntuación a la empresa licitadora que realice la mejor oferta económica.
Gainerako eskaintza ekonomikoei puntu 1 gutxiago emango zaie eskaintza onenetik gorako portzentaje-unitate bakoitzeko .	Al resto de las ofertas económicas se les realizará una baja de 1 punto por cada unidad porcentual al alza respecto a la mejor oferta
Eskaintzak neurriz kanpokoak direla edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatzailea ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz:	Para la valoración de las ofertas como desproporcionadas o con valores anormales, según lo dispuesto en el art. 85 del Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, se analizará si la empresa licitadora incurre en alguno de los siguientes supuestos:
– Lizitatzaile bakarra izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua portzentajezko 25 unitatetan beheratzen badu. – Bi lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak beste diru-eskaintza portzentajezko 20 unitatetan beheratzen badu. – Hiru lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, batez besteko hori ateratzeko ez da sartuko eskaintza ekonomiko altuena, baldin batez besteko hori baino portzentajezko 10 unitate altuagoa bada. Dena den, portzentajezko 25 unitateko beherapena neurriz kanpokotzat joko da. – Lau lizitatzaile edo gehiago izanik, aurkeztutako eskaintzak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, baldin eskaintza horien artean batez besteko hori portzentajezko 10 unitatetan gainditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatuko da, adierazitako azken kasu horretan sartzen ez diren eskaintzekin bakarrik. Dena den, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria kopuru baxuenak dituzten hiru	– Cuando, concurriendo un solo licitador/a, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales. – Cuando concurran dos licitadores/as, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta. – Cuando concurran tres licitadores/as, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales. – Cuando concurran cuatro o más licitadores/as, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, si entre ellas existen ofertas que sean superiores a dicha media en más de 10 unidades porcentuales, se procederá al cálculo de una nueva media sólo con las ofertas que no se encuentren en el supuesto indicado. En todo caso, si el número de las restantes ofertas es inferior a tres, la nueva media se calculará sobre las tres ofertas de menor cuantía.

eskaintzekin kalkulatuko da. Eskaintzetakoren bat/batzuk anormaltasun presuntzioan baldin badago, lizitatzaile horiei 5 egun balioduneko epe bat emango zaie, eskaintza hori baldintza horietan exekutatu ahal izateko inguruabarren justifikazio egoki bat aurkezteko, SPKLren 149.4. artikuluan horri buruz aipatzen diren irizpideekin.		Cuando alguna de las ofertas esté incursa en presunción de anormalidad, se concederá a las empresas licitadoras afectadas un plazo de 5 días hábiles para que puedan presentar una justificación adecuada de las circunstancias que les permiten ejecutar dicha oferta en esas condiciones, con los criterios que se señalan al respecto en el artículo 149.4 de la LCSP
11.1.2.Kontratua exekutatuko duten pertsonalak kontziliazio-neurriak edukiko dituen euren bizitza pertsonala, lana eta familia-bizitza uztartzeko: (bai ala ez) 3 puntu Konziliazio neurrien plana aurkeztu beharko dute.		11.1.2 Disponer de medidas de conciliación de la vida personal, laboral y familiar para la plantilla que ejecute el contrato: (si o no) 3 puntos Deberán presentar el plan de medidas de conciliación.
11.1.3. Obra egingo duten lantaldean kontratatutako emakumeen portzentajea: gehienez puntu 2 Emakumeen portzentajea %60 edo gehiago: 2 puntu--Emakumeen portzentajea %30-%59 bitartekoa: puntu 1 -Emakumeen portzentajea %10-%29 bitartekoa: 0,5 puntu		11.1.3.-Porcentaje de mujeres contratadas en la plantilla que va a ejecutar la obra: hasta 2 puntos Porcentaje de mujeres más del 60%: 2 puntos -Porcentaje de mujeres entre 30% y 59%: 1 punto -Porcentaje de mujeres entre 10% y 29%: 0,5 puntos
11.2 FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 25 PUNTU ***(B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN SARTU BEHARREKOA)*** SPKLaren 146.3 artikuluaren arabera, balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan enpresa lizitatzaileek % 50eko gutxieneko muga lortzea balio-iritzi baten mende dauden eta formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideen multzoan. Hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko **12,5 puntutara** iristen ez diren eskaintzak. Eskaintza teknikoa garatzea. (25 puntu, gehienez), era honetara: -Obraren antolaketa (5 puntu) - Egin beharreko obren eta haien alderdi garrantzitsuenen azterketa (10 puntu) - Obraren egitaraua (10 puntu		11.2 CRITERIOS NO EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS: PUNTUACIÓN MÁXIMA 25 PUNTOS ***(A INCLUIR EN EL ARCHIVO ELECTRÓNICO B)*** Conforme al artículo 146.3 de la LCSP, para ser admitidos a la valoración global, se exigirá que, en los criterios no cuantificable mediante fórmulas, las empresas licitadoras alcancen un umbral mínimo del 50% de la puntuación en el conjunto de los criterios sometidos a un juicio de valor y no evaluables mediante fórmulas, de forma que no sean tenidas en cuenta por la Mesa de Contratación las ofertas cuya puntuación no alcance lo siguiente: **12,5 puntos** Desarrollo de oferta técnica. (Hasta 25 puntos) de la siguiente manera: - Organización de la obra (5 puntos) - Análisis de las obras a ejecutar y sus aspectos más importantes (10 puntos) -Programa de la obra (10 puntos)
12. ESKAINTZEN AURKEZPENA		**12. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES**

Kontratazio honen espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa udal honetako Herritarren Arreta Zerbitzuan aztertu ahal izango dira, bulegoak jendearentzat irekita dauden ordutegian, lizitazio-iragarkia Zarauzko Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.		El expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en el Servicio de Atención Ciudadana de este Ayuntamiento en horario de apertura al público de las oficinas, todos los días hábiles a partir del día siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio de licitación en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Zarautz y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones
Era berean, kontratazio horretarako sarbidea, horri lotutako dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Zarauzko Udaleko Kontratatzailearen Profilaren bidez egin ahal izango dira, lizitazio-iragarkia Zarauzko Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.		Asimismo, el acceso a esta contratación, la documentación técnica unida al mismo, los pliegos y a la documentación complementaria podrá realizarse a través del Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Zarautz, a partir del día siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio de licitación en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Zarautz y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones
Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko, helbide honetara joan: KONTRATAZIO UNITATEA Kale Nagusia 29 - 20800 Zarautz Tel: 943 005100 Faxa: 943 005200 E-maila: kontratazioa@zarautz.eus Kontratatzailearen profila: http://www.zarautz.eus		Para contactar con la Unidad de Contratación, dirigirse a: UNIDAD DE CONTRATACIÓN Kale Nagusia 29 – 20800 Zarautz Tel: 943 005100 Fax: 943 005200 E-mail: kontratazioa@zarautz.eus Perfil de contratante: http://www.zarautz.eus
Proposamenak **bitarteko elektronikoak soilik erabiliz** aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunekin bat etorriz, **HOGEITASEI EGUN NATURALEKO EPEAN**, aipatutako iragarkia Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilean agertzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita,. Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.		La presentación de proposiciones se llevará a cabo **utilizando exclusivamente medios electrónicos**, de conformidad con los requisitos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de la LCSP, durante el plazo de **VEINTISEIS DÍAS NATURALES**, contados a partir del siguiente a aquel en que aparezca el referido anuncio en el **Perfil** de **Contratante** del Ayuntamiento de Zarautz. En el supuesto de que el último día del plazo coincidiera en sábado, domingo o festivo, se trasladará al día siguiente hábil.
Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztu beharko dira.		Las proposiciones deberán presentarse redactadas en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, nahiz eta aldaera edo alternatibak onartuko diren. Bakarrik aurkeztu bada, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.		Cada persona licitadora no podrá presentar más de una proposición. No se podrá presentar ninguna propuesta en unión temporal con otros si se ha efectuado individualmente, o figurar en más de una unión temporal.

Lizitatzaileek agiriei edo, egonez gero, dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori eskaintzak jasotzeko jarritako epe-mugaren aurreko sei egunen barruan emango zaie, baldin eskaera hori eskaintzak jasotzeko aurrez adierazitako epea bukatu baino gutxienez zortzi egun lehenago egiten badute.	La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten quienes liciten será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos ocho días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente.
Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, data zifratzea eta baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman daude (www.contratación.euskadi.eus).	La información y las especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratación.euskadi.eus)
Bi fasetan bidali ahal izango dira eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez; lehenik eta behin, eskaintzen hatz-marka elektronikoa transmitituko da, eta, horren bidez, eskaintza ondorio guztietarako aurkeztu dela ulertuko da, eta, ondoren, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ulertuko da. Eskaintzaren aztarna elektronikotzat hartzen da datu multzo bat, zeinaren sortze-prozesuak bermatzen baitu argi eta garbi lotzen direla eskaintzaren edukiarekin, eta aukera ematen baitu eskaintzaren edukiaren balizko aldaketak hautemateko, haren osotasuna bermatuz. Espedienteari erantsi beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta bertan ezarritako ondorioak ordeztu beharko dituzte. Aurkezpen elektronikoa egiteko: **AURKEZPEN ELEKTRONIKOA** Erabiltzaileen Arretarako Zentroa. 012 telefonoa, Euskal Autonomia Erkidegotik egindako deietarako. Gainerako deietarako, telefonoa: 945018000 Interneteko helbidea: www.euskadi.eus Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus	El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica de las ofertas, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada. Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, y que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, sustituyendo los efectos establecidos en la misma. Para la presentación electrónica: **PRESENTACIÓN ELECTRÓNICA** Centro de Atención a las personas usuarias. Teléfono 012 para las llamadas realizadas desde la Comunidad Autónoma de Euskadi. Para el resto de las llamadas, teléfono 945018000 Dirección de internet: www.euskadi.eus Dirección de correo electrónico: laguntzakpe@euskadi.eus

PROPOSAMENEN EDUKIA:	**CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES:**
Enpresa lizitatzaileek HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C).	Las empresas licitadoras deberán presentar TRES ARCHIVOS ELECTRÓNICOS (A, B y C).
1.- "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" deituko da, eta honako hauek jasoko ditu:	1.- ARCHIVO ELECTRÓNICO "A" se denominará "CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR" y contendrá:
-Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)	-El Documento Europeo Único de Contratación (DEUC)
EKAB formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko web-orri honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es	El formulario normalizado del DEUC está disponible para ser rellenado electrónicamente en la siguiente dirección web: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es
*ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK	*UTE
Hainbat enpresa aldi baterako enpresa-ekarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta horietan jasota egongo da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu hauetarako eskatzen den informazioa.	En el supuesto en que varios empresarios o empresarias concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación.
Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresen konpromiso bat aurkeztuko da. Hor adieraziko dute SPKLren 69. artikuluaren 3 atalean eskatutakoaren arabera egingo dela aldi baterako elkartea.	Adicionalmente a la declaración o declaraciones a que se refiere el párrafo anterior se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios y/o empresarias que sean parte de la misma de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 de la LCSP.
**ATZERRIKO ENPRESAK	**EMPRESAS EXTRANJERAS
SPKLren 67 eta 68 artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzaileei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.	Las empresas extranjeras deberán acreditar su capacidad en la forma prevista en los artículos 67 y 68 de la LCSP. Además de la declaración responsable, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados o tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la empresa licitante.
2.- "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOAk azpititulu	2.- ARCHIVO ELECTRÓNICO "B" se

hau izango du: "ESKAINTZA TEKNIKOA". Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak: Plegu hauetako 11.2. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.	denominará "OFERTA TÉCNICA" y contendrá los siguientes documentos: Documentos que acrediten el cumplimiento de los criterios de adjudicación, señalados en el apartado 11.2. de este pliego
Plegu hauetan adierazitako adjudikazio irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzaileak.	Se incluirá toda la documentación que la empresa licitadora considere necesaria para valorar los distintos aspectos de la oferta según los criterios de adjudicación citados en este pliego.
Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak "C" artxiboan sartuko dira.	En ningún caso deben incluirse el presente archivo en la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática y que deben incluirse en el archivo "C".
3.- "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOAk azpititulu hau izango du: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA". Hona hemen "C" artxiboan aurkeztu beharreko agiriak:	3.- ARCHIVO ELECTRÓNICO "C" se subtitulará "PROPOSICIÓN ECONÓMICA" y contendrá los siguientes documentos:
Kopuruetan edo portzentajeetan baloratzekoa den irizpideari buruzko eskaintza ekonomikoa sartuko da, hain zuzen, plegu honetako 11.1. atalean adierazitakoa. Plegu hauen II eranskineko ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da.	Se incluirá la proposición relativa al criterio valorable en cifras o porcentajes al que se refieren el apartado 11.1. de este pliego. La proposición se ajustará al modelo establecido en el anexo II del presente Pliego.
Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko balio-iritzi baten bidez baloratzekoak diren adjudikazio-irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzeko ez dena); horiek guztiak "B" artxiboan sartuko dira.	En ningún caso deben incluirse en el presente archivo datos correspondientes a criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor (no evaluable mediante fórmula) y que deberán incluirse en el archivo"B".
13. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA	**13. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES**
2016ko irailaren 29an egindako bilkuran Udalbatzarrak besteak beste erabaki zuen Zarauzko Udaleko kontratazio-mahai Iraunkorra eratzea. Mahaiaren osaera eta funtzionamendu-arauak ere finkatu zituen. 2018ko maiatzaren 31an egindako bilkuran, berriz, Udalbatzarrak, osaera aldatzea erabaki zuen.	El Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 29 de septiembre de 2016 acordó entre otros la constitución de la Mesa de Contratación Permanente del Ayuntamiento de Zarautz, así como su composición y normas de funcionamiento. Asimismo, el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 31 de mayo de 2018, acordó modificar su composición.
Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du ("A" artxiboa). Hori egiteko Herri	Vencido el plazo de presentación de proposiciones, se procederá a clasificar la documentación recibida en tiempo y forma (archivo"A"), procediendo, para ello, como se

Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.		señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.		Una vez calificada la documentación presentada, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, se procederá al pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo.
Jendaurrekoa ez den egintza horretan, onartutako enpresen "B" artxiboa irekiko da (formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideak), eta artxiboan sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.		En el acto no público se procederá a la apertura del archivo "B" (Criterios no cuantificables por fórmula) de las empresas licitadoras admitidas, dando lectura a la relación de los documentos aportados. A continuación, se dará por concluido el acto celebrado.
Jarraian, "B" artxiboko edukia Zarauzko Udaleko teknikariei bidaliko zaie, formula bidez ebaluatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Hori bai, txosten horrez gain, beste txosten tekniko batzuk ere eskatu ahal izango dira, ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak direla uste izanez gero.		Posteriormente se remitirá el contenido de los archivos "B" para que el personal técnico municipal, emita informe en relación a los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmula, sin perjuicio de poder solicitar cuantos informes técnicos se estimen necesarios a los efectos de formular su propuesta de resolución.
Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.		Recibidos los informes solicitados se constituirá la Mesa de Contratación, en acto no público, y valorará los informes y decidirá sobre la puntuación a asignar a cada empresa licitadora.
Kontratazio-mahaiak, jendaurreko egintzan elkartuta, enpresa bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" artxiboak ireki (formula bidez ebaluatzeko irizpideak), eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.		La Mesa de Contratación, reunida en acto público, comunicará el resultado de la puntuación obtenida por cada empresa licitadora, e informará sobre las proposiciones admitidas, de las rechazadas y causa o causas de inadmisión, procediéndose a continuación a la apertura del archivo "C" (Criterios cuantificables por fórmulas) y a la lectura de las ofertas económicas contenidas en las mismas.
"C" artxiboa irekitzeko jendaurreko egintza Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako toki eta egunean izango da.		El acto público de apertura de los archivos "C" se celebrará en el lugar y fechas indicados en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Zarautz.
Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, "C" artxiboak udal teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula		Si la Mesa de Contratación lo considera necesario acordará la remisión de los archivos "C" para que sean analizados por los técnicos y

aritmetikoen bitartez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten.	las técnicas municipales y emitan informe respecto de los criterios evaluables mediante fórmulas aritméticas.
Gero, Kontratazio-mahaiak kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio Alkatetzari.	La Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación del contrato a Alcaldía.
14. BERDINKETA	**14. EMPATE**
Proposamenen puntuazioan dagoen berdintasunaren aurrean, eta SPKLren 147. artikuluaren arabera, berdinketa erabakitzeko, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den uneari dagozkion irizpide sozial hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:	Ante la igualdad en la puntuación de las diferentes proposiciones y de conformidad a lo establecido en el art. 147 de LCSP, el empate se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:
1.- plantillan desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa, lehentasuna emanez plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handienari edo plantillan txertatuta dauden langileen kopuru handienari. 2.- plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiena. 3.- plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.	1.- Mayor porcentaje de personas trabajadoras con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla, primando en caso de igualdad, el mayor número de personas trabajadoras fijas con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla 2.- Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla. 3.-Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla.
4.- Zozketa, aurreko irizpideen aplikazioak berdinketa haustea eragin ez badu.	4.-El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.
